

HARAN SUBMEDITERRANEOAK

ARABA



A•34 Solana Muinoko erkameztia

Solana Muinoak goragune txiki bat hartzen du Escanzana eta Lacervilla landaguneen artean, eta Arabako Bailara eskualdean ohikoak diren zereal—labore intentsioek inguratzen dute guztiz.

Enklabe honek duen interes nagusia bere lekukotasun—balioa da, haran—hondo hauetako jatorrizko landarediaren adierazle diren “uharte” urrietako bat delako. Nekazaritzaren presioa eta egur gehiegi atera izana dira baso txiki honek jasandako eragin nagusiak. Dena den, artadi submediterraneoko landaredia eta hegazti—komunitate tipikoa kontserbatzen ditu.



A•35 Artako artadia

Kanpezuko nekazaritza—harana iparraldera Lokizeko mendilerroak eta hegoaldera Kodesekoak babesten duten eta mikroklima submediterraneo atsegina duen sakonune bat da. Orbiso inguruetan, soro landuz inguraturik, Artako artadia dago, gure lurraldean irauten duen Lizarrako artadi bakanetako bat alegia. Eremu heze eta babestuetan kokatzen den landare—multzo autoktono bat da, eskualdeko klima beroagoa eta hezeagoa zen garai geologikoetako benetako erlikia. Basoa zuhaitz helduek osatzen dute ale gazte batzuekin batera eta, gainera, ehun urtetik gorako erkametz batzuk ere hartzen ditu barnean; guztia han—hemenka sakabanaturiko soilgune txiki batzuekin eta era askotako hegazti txikien komunitate batek bizitoki duen ezka, izpiliku, gogortxu eta gurbitzez osaturiko oihanpe batekin. Enklabe honetan, gainera, Euskal Herrian dugun *Dactylorhiza markusii* izeneko Alde Mediterraneoko orkidea bitxiaren populazio bakarra dago.

Nahitaezkoa da mozketa masiboetatik eta obra publikoetatik mirariz ihes egin eta honaino kontserbazio—egoera oso onean iritsi den monumentu natural txiki hori babestu eta balioestea. Azpimarratzeko moduko bitxikeria da gaur egun espazio honetaz egiten den erabilera nagusia boiler—bilketa izatea, hau da, ia batera erasokorra ez den jarduera bat.